

## LAN ETA LAGUN ASKOREN BEHARRA DU SAGARDO EGUNAK

Sagardo Egunaren Lagunak taldetik jende asko pasa da. Garai ezberdinak egon dira hogeita hosi urte hauetan. Aurten, ordea, belaunaldi ezberdin horietako hainbat kide batu dira sagardo egun berezi bat antolatzeko.



APIRILEAN EGIN ZEN XXV. SAGARDO EGUNAREN AURKEZPENA.

**A**urtengoa ezberdina izango da. XXV. edizioak hala eskatzen zuen. 2006ko Sagardo Eguna ez baita egun bakarrean ospatuko. Ekitaldi asko dira prestatu direnak. Ahalegin berezia egin behar izan dutenez, hasierako eta egungo antolatzaileak elkartu dira. Batzuen eta besteen adierazpenak bildu nahi izan ditugu.

**Sagardo Eguna sortu zenean...**

Konturatzen ez bagara ere, Sagardo Egunak badu bere jato-

ria, bere hasiera, eta honekin batera, bere sortzaileak ere badi-tu. Solasaldi honetan, Ana Aizpurua izan da sorrera horren bozeramale: "Herrian sagardoak garrantzia izan arren, ia ez zuen garrantzirik gizartean. Baserrietan geratzen ari zen, eta besteei garrantzia jakinarazi nahi genien, kulturalki bultzatu behar zen". Horregatik egin zuen Andatza KKEk lehenengo Sagardo Eguna, baina ez zen kasualitatea izan maiatzean izatea: "Sagardo Egunarekin hasi aurretik, txotx garaia oso talde murriztarentzat izaten zen, elkar-te gastronomikoentzat, gizonez-koentzat... Beranduago sagar-

doa erosiko zutenentzat. Data hori aukeratu genuen apirila botilatzeko garaia delako, eta guk nahi genuena sagardoaren kontsumoa urte guztikoa izatea". Hala ere, Ana Aizpuruaren iritziz, garapena kontrakoa izan da, txotxeko garaia bultzatu delako azkenean.

Horrelako festa bat aurrera eramateak, gaur egun bezala, jende askoren lana eskatzen zuen. Baina, erraza izan ote zen hasiera horretan herritarren implikazioa lortzea? "Herrigintza asko sentitzen zen; orain ere lan asko egiten da, baina lehen bolondres piloa zegoen.

Borondate izugarria zegoen, eta hau da aldatu dena”.

Pasa diren urte hauetan guztietan helburua bete dela uste du Anak: “Gaur egun Sagardo Egunean duen oihartzuna egindako lanaren ondorioa da”.

## Akerra Gaztetxea Sagardo Egunean

Andatza KKEren ondoren hasi ziren Akerra Gaztetxeako antolaketa lanetan. Ane Loidik kontatu digu nolakoa zen taldearen egoera garai hartan: “ondo zegoen, desberdina zen agian. Diputazioak diru laguntza ematen zuen, baina gu sartu ginenean, edo inguru horretan, diru laguntzak emateari utzi zion”. Orduan hasi ziren edalontziak saltzen, diru aldetik ardura gehiago zutelako. Hala ere, lehen bezala gaiak jorratzen jarraitu zuten.

Antolaketa taldean sartu aurretik, Sagardo Egunean bertan laguntzen aritu ziren Akerra Gaztetxeakoak: “Sagardo Egunean laguntzen hasi eta hurrengo urtean jada antolatzaile lanetan geunden. Jarraipen bat behar zuela, eta gu talde handia ginenez, hala hasi ginen”. Garai hartan kultur ekin-tza ezberdinetan hasi ziren parte hartzen.

Ane Loidiren ustez, nahiz eta lan asko egon Sagardo Egunean, guztiek gozatzen dute: “aurretik izaten da beti arazoren bat edo beste, baina gero, egun berean, uste dut denok zerbait berezia sentitzen dugula”. Eta egia da lan asko duela, denbora askorekin hasten baitira. Hasiera batean urte hasieran hasten ziren jaia prestatzen, baina oraingoan, XXV. urteurrenak bultzatuta, azaroan hasi ziren. Prestaketa da, beraz, berarentzat gogorre-

na: “gauzak ez badira ondo prestatzen, egun berean dena gaizki ateratzen da. Eta aurretik ondo lotuz gero, egunak berak berez ez luke arazorik eman behar”.

## Akerrakoak eta gero...

Ondoren sartu zirenak ere koadrila handia ziren. “Gu sartu ginenean Akerra Gaztetxeakoak ziren antolatzaileak eta, egia esan, haiena koadrila handia zen. Gu ere koadrila handia gara eta haien laguntzarekin, bi koadrilen artean, lehenengo urtean nahikoa indartsu ibili ginen. Bi koadrila handiren artean eramaten genuen asuntia”, kontatu digu Joseba Pellejerok. “Haiek utzi zuten eta guk hartu genuen, eta pixkanaka-pixkanaka gutako batzuk ere uzten hasi ziren. Eta gero, normala den bezala, gazte jendea hasi ginen hartzen”.

Orain hiru koadrila daude lanean, Josebarena barne. “Koadrila bakoitzetik zatitxo bat”, berak esan digun bezala. “Aurtengoan, XXV. urteurrena denez, lehendik antolatzen ibili diren Akerra Gaztetxeako batzuk ere badaude, eta hasierako antolatzaile batzuk ere bai... Lehengoak eta oraingoak, pixka bat nahastuta”.

Bere koadrilaren kasuan saltsa edo giroagatik sartu ziren taldean: “koadrilan sartu ginen txoro-txoro, eta usurbildarra izanda normala den bezala sagardo mundua ez da urrutiko mundu bat. Eta egia esan, saltsan ibiltzea eta baserria... beti gustatu izan zaigu giro hori”.

Aurretik lan asko egin behar duten arren, berak eta gainontzeko guztiek gozatzeko astia izaten dutela pentsatzen du Josebak. “Egunean bertan nahiko estresagarria izaten da, baina

nik behintzat, zentzu hori umorez hartzen dut, ahal dudan neurrian. Gainera, goiza pasa eta pixka bat lasaitzen gara”.

Prestaketa lanak, azken urteetan, hiru hilabete lehenago hasi ohi dituzte, Aste Santuak aldera. “Aurtengoa zer esanik ez, aurtengoa azaroa bukaeraz geroztik hasi gara antolatzen, eta astero-astero bilerak egiten ari gara”.

## Azken fitxajeak

“Pellejeroren koadrila zegoen gu sartu ginenean, agian orain baino jende gehixeago zegoen, baina egoera oraingoaren antzekoa zen, batzuk utzi egin duten arren”, esan digu Urko Manterolak. Urko eta beste zenbait gazte izan dira Sagardo Egunean Lagunak taldean sartzen azkenak, baina taldearen oraingo egoera ez dute hain ondo ikusten: “Orain miseria daukagu. Jendeak utzi egin nahi du, gazteak ere gutxi geratzen gara, eta guk ere jada urte batzuk ditugu. Sagardo Egunean bertan jendeak laguntzen du, baina antolatzeko garaian... Orain ere zazpi bat lagun biltzen gara, gehiago ez”.

Egunean bertan gozatzearena erlatiboa da berarentzat, goiz partean ez baitu horretarako astirik ikusten. Hala ere, “behin eguerdi partean, martxa hartuta dagoenean, deskantsatu egiten da”.

Prestaketa lana oso mekanikoa dela dio Urkok, jada XXVgarrena delako. “Jada bakoitzak bere lanak nahikoa ondo ikasita ditu”. Nolanahi ere, behin festa bukatzean, norbaitek jaso behar du guztia: “beti dago jendea eskakeorako... Hainbeste jende lanean jartzea ere ez da erraza izaten, gainera”.